



Osakidetza

BALIABIDEEN GIDA ZAINKETA ARINGARRIETAN



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN ETA KONTSUMO
SAILA

DEPARTAMENTO DE SANIDAD
Y CONSUMO

BALIABIDEEN GIDA ZAINKETA ARINGARRIETAN

1. SARRERA
2. ZAINKETA ARINGARRIEN UNITATEAK EGONALDI ERTAIN ETA LUZEKO OSPITALEETAN
3. ZAINKETA ARINGARRIEN ZERBITZUA AKUTUEN OSPITALEETAN
4. ETXEKO OSPITALIZAZIO ZERBITZUA
5. ZAINKETA ARINGARRIEN (ZA) EUSKARRI TALDEA. ARABAKO ESKUALDEA.
6. AURRETIAZKO BORONDATEEN ERREGISTROA
7. DOKUMENTU INTERESGARRIAK
8. ELKARTE ZIENTIFIKOETARAKO LOTURA
9. OSASUNARI LOTUTAKO ELKARTEETARAKO LOTURA

SARRERA

Osasun Mundu Erakundeak (OME), 2002an honela definitu berri ditu zainketa aringarriak:

... pazienteen eta bere familien bizi-kalitatea hobetzen duen metodo bat da, gaixotasun larriekin erlazionatuta dauden arazoei aurre eginez sufrimendua prebenituta eta arinduta, mina eta bestelako arazo fisiko, psikologiko eta espiritualak azkar identifikatuta eta behar bezala baloratu eta tratatuta".

Euskadiko osasun-atentzio mota eredu "integratzailea" da. Hau da, asistentzia-baliabide guztiekin kontatzen dugu, Lehen Mailako Atentzioan egon edo Atentzio Espezializatutako eta Ospitaleetako zerbitzuetan egon.

Euskal Autonomia Erkidegoan, pazienteen atentzio-planaren helburua bizitzaren azken fasean edo Zainketa Aringarrien fasean, etapa horretan dagoen pazientearen atentzioa hobetzea da, dauden baliabideak berrantolatuz eta behar bezala erabiliz dagokion momentuan, tresna egokiekin eta behar diren baliabideekin.

Zerbitzu edo Unitate bereziak atentzio pertsonalizatua eta etengabea emateko daude fase terminaleko egoera oso berezi edo konplexuetan.

ZAINKETA ARINGARRIEN UNITATEAK EGONALDI ERTAIN ETA LUZEKO OSPITALEETAN

Baliabide berezien artean daude “Zainketa Aringarrien Unitateak”. Egonaldi ertain eta luzeko ospitale-zentroetan daude esparru horiek. Bertan, zortzi ohe daude egoera terminalean dauden pazienteak atenditzeko eta hainbat arrazoi tarteko ingresatu beharra daukaten pazienteak atenditzeko: Sintoma larriak kontrolatzeko, zaindariak eta familiarrak etsitzen direnean edo osasun-zainketak bermatu behar direnean familiaren edo gizartearen laguntza faltagatik.

1. TAULA erantsian, Osakidetzako asistentzia-sarean dauden **Zainketa Aringarrien Unitateak** eta bakoitzaren ezaugarri nagusiak ageri dira.

1. TAULA.- Osakidetzako asistentzia-sarean dauden Zainketa Aringarrien Unitateak eta bakoitzaren ezaugarri nagusiak.

Ospitalea	Atentzio-mota	Sartzeko era	Helbidea eta telefonoa	Lurraldea	(+) Informazioa
Santa Marina	Eskaintza aipagarriena gaixo onkologikoen atentzioa da	Pazientea atenditzen duen lehen atentzioko edo atentzio espezializatuko zerbitzuak edo profesionalak bideratutako kontsulten edo deribatutako orrien bidez	Santa Marina errep. 41, 48004 Bilbao Tf. 944006900	Bizkaia	Ospitaleko Zuzendaritza Medikoa
Gorliz	Eskaintza aipagarriena gaixo ez-onkologikoen atentzioa da		Astondo Ibiltoki kalea, 2. 48630 Gorliz Tf. 944006600	Bizkaia	Ospitaleko Zuzendaritza Medikoa
Leza	Eskaintza aipagarriena gaixotasuna aurreraturik daukaten eta arazo sozialak dituzten pazienteen atentzioa da		Vitoria-Logroño, errep. 59. km 01309 Laguardia 945 - 00 69 00	Araba	Ospitaleko Zuzendaritza Gerentzia

ZAINKETA ARINGARRIEN ZERBITZUA AKUTUEN OSPITALEETAN

Progresiboki areagotzen joango da **zainketa aringarrien zerbitzu**en eskaintza Osakidetzako akutuen ospitaleetan. Ekipamendu horiek profesional sanitarioez osatuta daude eta beste profesional batzuk eskatuta talde-lanean aritzen dira fase terminalean dagoen pazienteari eta bere familiari zainketa integralak, indibidualak eta etengabeak eman ahal izateko.

Asistentzia-prozesuetan laguntzaile moduan jarduten dute zainketa aringarrietan, eta euren eginkizunen baitan haiek sartzen dira: paziente eta familiaren atentzio zuzena, baliabide egokiak koordinatzea edo protokoloak batera prestatzea eta beste profesional batzuei laguntzea edo haiek prestatzea.

2. TAULAn, gaur egun zerbitzu hori daukaten ospitaleak ageri dira.

2. TAULA.- Zainketa Aringarrien Zerbitzuak Akutuen Ospitaleetan

Ospitalea	Helbidea	Kokapena	Harremanet arako telefonoa	Sartzeko era	(+) Informazioa
Gurutzeta	Gurutzeta plaza z/g. 48903 Barakaldo	Zainketa Aringarrien Zerbitzua Behe Solairua E eremua	94 600 60 00 Luzapena 5203	Pazientea atenditzen duen zerbitzuak edo profesionalak bideratutako kontsulta arteko orriaren bidez	Zuzendaritza Medikoa
Donostia	Beguiristain doktorearen pasealekua z/g. 20014 Donostia	Zainketa Aringarrien Zerbitzua Amara Eraikina	943007438		Zuzendaritza Medikoa
Santiago	Olaguibel kal., 29. 01004 Vitoria-Gasteiz	Zainketa Aringarrien Zerbitzua 5. Solairua – B Eremua	9450076 00 Luz. 5681		Zuzendaritza Medikoa
Txagorritxu	Jose Atxotegi kal., z/g. 01006 Vitoria-Gasteiz	Zainketa Aringarrien Zerbitzua 7. Solairua -C	945007241		Zuzendaritza Medikoa

ETXEKO OSPITALIZAZIO ZERBITZUA

Eusko Legebiltzarraren zainketa aringarrien Planaren helburuetako bat da azken fasean dauden ahalik eta pertsona gehien euren etxean edo bere ingurune familiarrean atendituak izatea. **Etxeko Ospitalizazioa** ospitalearen beste zerbitzu bat da, medikuek eta erizainek osatzen dutena. Pazientearen etxera joaten dira eta zentroko baliabide diagnostiko eta terapeutiko guztiak dituzte eskura. Euren helburua da ospitalean ingresatzea saihestea edo ahalik eta gutxien ospitaleratzea, eta euren egoera klinikoaren konplexutasuna dela eta zainketa konplexuak edo egunero behar dituzten pazienteentzat da zerbitzu hori.

Etxeko Ospitalizazioak berdin atenditzen ditu gaixotasuna oso aurreraturik daukaten edo fase terminalean dauden pazienteak zein gaixotasun akutua edo kirurgia osteko pazienteak. Zerbitzu honetako ingresu guztien %30 zainketa aringarriak behar dituzten pazienteenak dira.

Gaur egun, akutuen ospitale guztiek eskaintzen dute zerbitzu-mota hau. **3. TAULA**n, zerbitzu-mota honen ezaugarri nagusiak laburbiltzen dira.

3. TAULA.- Etxeko Ospitalizazioko Zerbitzuak

Ospitalea	Helbidea	Kokapena eta kontaktua	Sartzeko era	(+) Informazioa
Basurtu	Montevideo Ibilbidea, 18 48013 Bilbo	Makua Eraikina (Sotoa) 94 400 61 21	Pazientea atenditzen duen zerbitzuak edo profesionalak bideratutako kontsulta arteko orriaren bidez	Zuzendaritza Medikoa
Gurutzeta	Gurutzetako plaza z/g. 48903 Barakaldo	Administrazioa Pabilioia 6. solairua 94 600 64 67		Zuzendaritza Medikoa
San Eloy	Miranda Ibilbidea, 5. 48902 Barakaldo	Zerbitzua Gurutzetako Ospitalekoarekin bateratuta dago		Zuzendaritza Medikoa
Galdakao- Usansolo	Labeaga Auzoa, z/g. 48960 Galdakao	10. Solairua 94 400 70 01		Zuzendaritza Medikoa
Debagoiena	Nafarroa Ibilbidea, 16. 20500 Arrasate	Beheko Solairua (barrean) 943 03 57 73		Zuzendaritza Medikoa
Bidasoa	Zubieta Finka, Mendelu Auzoa, z/g 20280 Hondarribia	Larrialdietako Zerbitzuaren ondoan 943 00 77 12		Zuzendaritza Medikoa
Mendaro	Mendarozabal Auzoa, z/g. 20850 Mendaro	Ospitalearen atzealdean, aparkalekuaren ondoan 943 03 28 44		Zuzendaritza Medikoa
Donostia	Beguiristain doktorearen pasealeku z/g. 20014 Donostia	Amara Eraikina 1. Solairua 943 00 60 63		Zuzendaritza Medikoa
Zumarraga	Argixao Auzoa, z/g. 20700 Zumarraga	Solairu edo sarrera nagusia 943 03 50 89		Zuzendaritza Medikoa
Santiago	C/ Olaguibel, 29. 01004 Vitoria	Pabilioi Zentrala 3. Solairua 945 00 56 37		Zuzendaritza Medikoa
Txagorritxu	Jose Atxotegi kal., z/g. 01006 Vitoria-Gasteiz	5. Solairua B Eremua 945 00 72 76		Zuzendaritza Medikoa

ZAINKETA ARINGARRIEN (ZA) EUSKARRI TALDEA. ARABAKO ESKUALDEA.

Lehen Mailako Atentzioan, orain pilotatze-fasean, 2010eko martxoan abian jarri zen "[Zainketa Aringarrien euskarri-talde](#)" bat Arabako Eskualdeko Lehen Mailako Atentzioko profesionalentzat. Horren oinarritzko jardueretako bat da asistentzia-laguntza eskaintzea, LMATko profesionalak erabiltzaileei eta euren familiari atentzioa euren etxean eman ahal izateko.

Taldea Gazalbide-Txagorritxu Osasun Zentroan dago kokatuta. Bertan dauka kontsulta bat eta biltegi txiki bat material (teknikoak, bibliografikoak..) eta medikazioak gordetzeko. Taldearen ordutegia 8:00etatik 15:00etara da, astelehenetik ostiralera.



Zainketa Aringarrien Euskarri Taldea
Arabako Eskualdea
Helbidea: Txile kalea, 9. 01009 Gasteiz
Telefonoa: 945 00 66 71

AURRETIAZKO BORONDATEEN ERREGISTROA

Eusko Legebiltzarraren abenduaren 12ko [7/2002 Legearen](#) (osasun-arloko aurretiazko borondateenak) helburua da pertsonak medikuntzako zenbait esku-hartzeren aurrean bere borondatea aldeztu aurretik agertzeko duten eskubidea gauzatzeko bidea ematea Euskal Autonomia Erkidegoan, eta, horretarako osasun-arloko **aurretiazko borondateen agiria (ABA)** arautzea.

ABA mediku arduradunarentzako dokumentu idatzi bat da, non adin nagusiko pertsona batek, askatasun osoz eta legezko betekizunekin bat, adierazten dituen kontuan hartu beharreko jarraibideak berak bere egoeratik pertsonalki bere borondatea adierazi ezin duenerako. Gomendagarriena da ABA hori **Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroan** inskribatzea, horrela pertsonal sanitarioak errazago jakingo du dokumentu hori erregistratuta dagoela behar dutenerako. Azaroaren 4ko [270/2003 Dekretuak](#) sortu eta arautzen du Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroa.

Erregistroan inskribatutako ABA kopurua gero eta handiagoa da. Orain bertan, 6000 ABA baino gehiago daude erregistratuta. Hiritar batek bere ABA Osakidetza baten Historia Kliniko Elektronikoa (CLINIC) erregistratzen badu, ikono bat agertuko da, atenditzen duen profesionalari ABA hori erregistratuta dagoela esaten diona. Informazio gehiago nahi izanez gero:

Osasun eta Kontsumo Saila. AURRETIAZKO BORONDATEEN ERREGISTROA

Donostia-San Sebastian Kalea, 1

01010 - Vitoria-Gasteiz

Tnua. 945 019254

Faxa: 945 019302

e-mail: registrodevoluntadesanticipadas-san@ej-gv.es

[http://www.osanet.euskadi.net/r85-](http://www.osanet.euskadi.net/r85-20319/es/contenidos/informacion/servicios_ciudadania/es)

[20319/es/contenidos/informacion/servicios_ciudadania/es](http://www.osanet.euskadi.net/r85-20319/es/contenidos/informacion/servicios_ciudadania/es)

DOKUMENTU INTERESGARRIAK

- o Zainketa Aringarrien Plana. Pazienteen atentzioa bizitzaren azken fasean. EAE, 2006-2009
- o Estrategia Osasun Sistema Nazionalaren Zainketa Aringarrietan. Osasun eta Kontsumoko Ministerioa. 2007ko urtea
- o Zainketa Aringarri hobeak adin nagusiko pertsonentzat. WHO Regional Office for Europe. World Health Organization 2004
- o Aurretiazko borondateen agiria: iritziak eta gomendioak. Alberto Manzano et al. 1. edizioa. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritzako Argitalpenen Zerbitzu Zentrala, 2004
- o Zainketa Aringarri buruzko Praktika Klinikoaren Gida: Osasun eta Kontsumoko Ministerioko Osasun Sistema Nazionalerako Plan Nazionala. Euskal Herriko Teknologia Sanitarioen Ebaluazio Agentzia; 2008. Praktika Klinikoaren Gidak OSN-n: OSTEBA 2006/08 z.
- o Palliative Care. World Health Organization. ISBN 92 4 154734 5

ELKARTE ZIENTIFIKOETARAKO LOTURA

- o Arinduz. Euskadiko zainketa aringarrien elkarte. <http://www.arinduz.org/>
- o Zainketa Aringarrien Euskal Elkarte.. SOVPAL. <http://www.sovpal.org/>
- o Familia eta Komunitateko Medikuntzako Euskal Elkarte <http://www.osatzen.com/>
- o Zainketa Aringarrien Espainiako Elkarte (SECPAL) <http://www.secpal.com/index.php>
- o Familia eta Komunitateko Medikuntzako Espainiako Elkarte (SEMFYC), Zainketa aringarrietako talde kolaboratzailea. http://www.semfyc.es/es/grupos_trabajo/paliativos
- o Onkologia Medikoko Espainiako Elkarte (SEOM) www.seom.org

OSASUNARI LOTUTAKO ELKARTEETARAKO LOTURA

Osasunari lotutako elkarteetarako lotura

http://www.osakidetza.euskadi.net/v19-osk0045/es/contenidos/informacion/asociaciones/es_salud/a.html